



Andolin Eguzkitza

Euskal Idazleen ginetan

Aurton ere Galeusca biltzarrean hartu du parte euskal idazleordezkaritza batek. Izan ere, bederatzi idazle egon gara Herrialde Katalanetan, Valentziar Herriko Castello eta Morella hirietan. Bederatzi idazle eta gure elkar-tearen idazkari bi. Ez gutiago, baina ezta gehiago ere. Galiziarrak, Uxio Novoneira euren lehendakaria hil eta gero, hamalau ziren bakarrik, baina haien artean, urtero antolatzen den Galeuscan, ohikoa hogeita bost bat partaide agertzea da. Eta katalanetan, jakina, aurton Herrialde Katalanetan izanda, askozaz gehiago, berrogei eta berrogeita hamar bitartean. Euskaldunon aldetik, eta goratik aldarrikatu gura dut hala sentitzen dudalako, benetan lotsagarria.

Honetaz gogoetaka nengoela —haserre gainera— neure artean pentsatzen nengoelako: «zer egin beharko ote dugu? Beharbada geure jendea, geure bazkideak diruz erosi, kanpora goazenean gutienezko duintasunez osaturiko ordezkari batekin agertzeko?», gurekin Morellan egon zen Gerardo Markuletak, Jon Alonsok *Gara* egunkarian agerturiko zutabetxo utzi zidan. Jose Saramago idazle portugesak Bilbora egindako bisitaz ari zen, Jonek berak itzulitako *Lisboako setioaren historia* eleberriaren euskarazko argitalpena aurkeztearen kariaz egindako bisitaz, hain zuzen ere. Eta zertzeladetan sartu gabe ere, beraren ondorioa oso zen antzekoa: «Gehiegikeriatan ari ote naiz? Hori ere litekeena da, noski. Baina orduan, esplika iezadazue nola den posible Nobel Saria Bilbora etorri eta dozena bat eta erdi euskal idazle eskas baizik entzutera ez joatea. Berehundurik gora gonbidatuta zeudenean».

Are gehiago, ez aurtongo Galeuscan bakarrik, Herrialde Katalanetan izan delarik, ezpada Biarritzen egin ge-

nuen Galeuscan ere —Euskal Herrian halandaze— talderik txikiena euskaldunena izan zen, nahiz eta zorionez, egunez egun tantaka batzuk agertu ziren eta modu horretan itxurak behintzak egin.

Bestetik, idazleen elkartean antolatzen ditugun ekimenetan eta egiten ohi ditugun ekitaldietan parte-hartzea ere oso da txikia, baita idazleen interesak erdi-erdian daudenean ere. Azkenengo Batzar Nagusian esate baterako, Uztaritzen egin genuen batzarrean, ehuneko berrogei ziren bakarrik hegoaldekoak, idazleen elkarteak dauzkan bazkideetan iparraldekoak ehuneko 10-15 izan arren. Jakina, guztira ez ginen berrogei lagun izatera heldu, omen-duak barne, elkarteko bazkideak berrehun eta hogeizateagatik ere. Argi eta garbi, idazleen elkartearen lehendakari gisa ia hiru urte egin eta gero, inongo zalantzarik gabe esan dezaket, euskal idazleen absentismoa, erabatekoa ez bada, arras dela handia.

Arazoa zergatikoa da. Zer gertatzen da gure idazleak halakoetara ez joateko? Zein da elkarteko zuzendaritzaren hainbeste ahalegin egin beharraren kausa bazkideak zer edo zertan lotzeko? Eta niri ez zait oraingoz erantzun bat baizik otutzen: kontzientziarik eza. Idazle izatearen kontzientziarik eza, eta era berean idazle gisa dugun betebeharrak nagusitik aparte, hots, idazteaz gain, idazleen beharri-zanen kontzientzia.

Joan den astean Joxe Azurmendik ziostanez, idazle kontzientzia nahikoa modernoa ei da European. BERPIZKUNDE garaian agertzen dela, gero osterara ere ostentzen, XVIII. mendean Voltaire eta enparauekin berriz ere agertzeko. Ordutik hona sendotu egiten omen dela, eta idazleok helburu argiz eta autokontzientzia sendoz hasten direla aurrera egiten, hori delarik gaur egungo egoera orokorra mundu osoan.

Euskal literaturaren historiari begiratu bat ematen diogunean ere, arazoarekin behingoan egiten dugu topo. XX. mendera arte haatik ulergarria da: euskara ofiziala izan gabe, eta inongo eskolatan beharrezkoa izan gabe —sarritan baita eragotzia ere— espero izatekoa zen kontzientzia falta hori. Salbuespena, agian, Sarako Eskolan soma dezakegu,

euren artean ematen duelako benetako literatur proiektua bazegoela euskaldun jendearen fabore. Hala eta guztiz ere, testu erlijiosoak nagusi izan diren gure literatura klasikoan, apaiz ziren gure idazleek bazeukaten kontzientzia funtzionala behintzat, argi zeukatelako euskaraz idatzi behar zutela, herriari eman beharreko dotrina eman ahal izateko, eta eman behar zen moduan emateko, ulertuko bazieten bederen.

Kontzientzia funtzional hori baina, adibidez gure lehenengo kazetarietarikoa bat den Hiriart Urrutirengan hain argi agertzen dena, h.d., XIX. mendearen bigarren erdian, gainbehera doa gure hizkuntzaren galera eta higadura sozialaren ondorioz, eta hortaz XX. gizaldian oso berandu arte, ez dugu ostera ere ikusten. Lizardik beharbada bazeukan kontzientzia hori, euskara goratzeko idazle gisa egin behar zuen lanaren kontzientzia agertzen duenean. Eta Lauaxeta bera ere, agian, nahiz eta beraren kasuan militantzia politikoa literaturzaletasunarekin nahasiago egon. Eta gerra osteak luze jo beharko du oraindik kontzientzia hori berriz ere ager dadin. Gabriel Aresti da seguru asko, gure mendeko idazleetan kontzientzia hori era indartsuan erakusten duen lehenengoa, eta berarekin batera, baina modu apalagoan nik uste, Jon Mirande eta Txillardegia. Geroagoko idazleetan ez da seguru asko lar esan behar, eta Bernardo Atxaga eta Anjel Lertxundi aipaturik, eta halaber Koldo Izagirre eta Josemari Iturralde esate baterako, edo Aristi eta Jimenez beste hamaikaren artean, ezin dugu ezer guti gehitu.

Zer da orduan gertatzen zaiguna? Herrialde Katalanertara egindako bidaietan honetan berbetan geundela, hipotesi polita bota zuen Itxaro Bordak: ez ote dateke gure arteko gehienetan halako «sasikontzientziarik» baino ez dagoela? *Kitsch* izenarekin bataia genezakeen kontzientzia?, gehitu nion nik. Eta iraingarri izateagatik ere, hainbat kasutan ez dabilke errealitatekin oso hurrun: «idazlea naiz, idazlea naizela esateak halako fama eta sona ematen didalako besteen aurrean, ez baina obra bat egitekotan nagoe-lako edo helburu batzuk bete gura ditudalako, eta halan-

daze halakoak lortzeko behar direnak egiteko prest nagoe-lako. Ezta gutiagorik ere».

Beste lagun batzuk, ostera, ez zetozen bat. Taldean, beste batzuekin lan egiteko gogorik ezean omen dago haientzat gakoa. Jendea ez bide dago —hipotesi horren arabera— besteekin behar egiteko prest, proiektu komunei eusteko gertu, ezta neure etxetik, neure talde txikitik ateratzen nauen ezertan parte hartzeko ere. Eta nik neuk, Estatu Batuetan zortzi urte t'erdi bizi izateko aukera eduki dudana, halako eromen sentrazioa eduki dut, halako zurrunbilo batek hurrupatua bezala sentitu naiz, gizarte hartako norbanakokeria, eta «nori berea da eskubidea» barik «nori bere indarraren arabera da eskubidea» delakoaren kemena eta munduan hedatzeko indarra ostera ere sentitu dudalako.

Ez dakit, benetan.

Bost urte emanda dauzkat dagoeneko Euskal Idazleen Elkartearen zuzendaritzan, bi batzordekide moduan eta beste hiru lehendakari gisa. Eta aitortu behar dut: nekatuta nago. Ez baina fisikoki, ezta ere egiten dugunarengatik etsita edo bulegoan dauzkagun langile finengatik. Alde horretatik pozik nabil. Aurrera doaz gure proiektuak: eskola-programa, idazle-solasen antolamendua, literaturlangien proiektua, eta *Hegats* aldizkaria bera ere nahiko era finkoan ateratzea lortu edo dugu. Administrazio dugun aurrekontua ere ia sei bider handitu da. Alde horretatik ez dut protestarik egiten, ez naiz erraizunka hasiko. Baina nora goaz? Merezi du egiten dugun lana? Erantzunak ene aburuz ez du uzten zalantzarako tokirik: bai, merezi du. Literaturak merezi du. Euskal literaturak merezi du. Euskal Herriak merezi du. Baina ez dadila inor protestaka has, baldin eta gure politikariak ez badira gurekin arduratzen, baldin eta gauza ez bagara herri «normal» bat egiteko, baldin eta Euskal Herri errealean ezerezaren antzekoena bagara, baldin eta azken finean gure konplexuak, beldurak eta neurosiak handiagoak badira gure esperantza baino. ♣